

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Erizaintzako teknikari-laguntzailerako 69 plaza, erradiagnostikoko teknikarirako 13 eta emagin posturako beste 7 deitu dira

Izena bihartik aurrera, hilak 20, eman daiteke ekainaren 18ra arte, eta azterketak azaroan egingo dira

Martes, 19 de mayo de 2015

Osasunbideak
[erizaintzako](#) [teknikari-laguntzaile](#)en 69 plaza (ETL), [erradiagnostikoko](#) [teknikari-espezialista](#)ko (ETE) 69 eta [Erizaintza](#) [obstetrikoginekologikoko](#) [erizain-espezialistako \(emagina\)](#) beste 7 lanpostu betetzeko deialdia egin du, lehiaketa-oposizioaren bidez.



Osasun Departamentuak osasun-langileentzako 89 plaza deitu ditu,

2011n eten zen 2009ko Lan Eskaintza Publikoari dagozkion hiru deialdi dira, eta Gobernuak iragan martxoan [berriz aktibatu](#) zuena. Oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialak gaur argitaratzen ditu ([95. zenbakia](#), [maiatzak 19](#)).

Izena emateko epea bihar, asteazkena, hilak 20, hasiko da, eta ekainaren 18an amaituko. Haren aurkezpena eta azterketa-tasen ordainketa telematikoki egin behar dira www.empleosalud.navarra.es webgunean "lehiaketa-oposizioa" "deialdiak" estekan. Azterketak azaroan egingo dira, eta proposatutako gaiei buruz zenbait erantzun emateko aukera dituzten galdetegi bat idatziz erantzun beharko da; gaizki erantzundakoak penalizatu egingo dira, gainera. Horren ondoren, izangaiek argudiatutako merezimenduak balioesteko fasea egingo da: emandako zerbitzuak, prestakuntza, irakaskuntza, ikerketa eta hizkuntzak.

Plazen banaketa

Erizaintzako teknikari-laguntzaileen 69 plazetatik, 33 txanda libreari dagozkio, 32 sustapenekoari eta 4 % 33ko edo handiagoko desgaitasuna duten pertsonen gordetzen zaie. 42 Nafarroako Ospitalegunerako dira, 5 Lizarrako García Orcoyen ospitalerako, 6 Osasun Mentaleko Sarerako, eta gainerako 16ak deitzeke dauden aparteko lekualdatze-lehiaketa batean hutsik geratutako plazak dira.

Erradiagnostikoko teknikari-espezialistako 13 plazen kasuan, 6 txanda libreari dagozkio, 6 sustapenekoari eta bakararra desgaitasuna

duten pertsonen txandarako. 8 Nafarroako Ospitalegunerako dira eta 5 Tuterako Reina Sofía ospitalerako.

Azkenik, emaginaren 7 lanpostuak honako era honetan banatzen dira: 4 txanda librerako eta 3 sustapenerako. 6 Nafarroako Ospitalegunerako dira eta 1 Tuterako Reina Sofía ospitalerako.